



ERMUA, MUGARRIZ MUGARRI

Hilaren 25ean, 'Artarrai' mendi taldeak antolatuta, Ermuak inguruko herriein dituen mugak eta hori adierazten duten harri guztietatik egin zen ibilbide bat. Sei orduko ibilaldi herrikoi honetan 162 lagunek hartu zuten parte.

Patxi plazan elkartu, Sallabentera joan eta handik gero Eitzaga, Telleria eta Ureta baserriak inguratuz eta Areitiora doan errepidea zeharkatu ondoren, TVA lantegira jeitsi ziren. Behetik gora eginez, Mallamendira igo eta kanposantuaren gainekaldek, Errekalderra. Hemendik aurrerakoak izan ziren gogorrenak: Urko Goikoa baserria, Hirumugarre tontorra eta Urko punta, jeitsiera izan arren, ez da xamurragoa Elorreta Goikora jeistea edo Kariatik Sallabentera artekoa.

Mendiz-mendiko ibilaldi honetan izena du zapal dutako lur txatal bakoitzak: Bidepe, Bideburu, Lapurriturri, Anka, Telleria, Telleriaburua, Albarrandiemetikoa, Montazgo, Txabolaburu, Mallamendi, Betiondo, Pagadia, Pagorbe, Pótzuetakoko gaztañadia, Urko Goikoa, Pagoetakoa laua, Errekalde, Lurbarri, Hirumugarre (Mundio), Auntzarte, Urko, Ameztiburu, Arantzako gaina, Elorreta, Mataosteko tontorra, Kareaga, Esparrua eta Sallabente. Mallabia, Zaldibar eta Eibarko lurren ondo-ondoan ditu Ermuak bereak eta ibilbidearen alderik gogorrena azkenean egin zuten, Hirumugarre eta Urkoko tontorren 721 eta 791 metroei gaina hartuta. Bapo-bapo jan eta edanda, hori bai, ze igotzen hasi aurretik Errekalden hamaiketako zuten zain, soinu-jole eta guzti!

19 km.ko luzeera eta 2.110m. guztirako altuerari aurre eginez, adin guztietako jendea batu zen, gaztenak, Mikel Arrartek, 7 urte bazituen ere, edadetuenak, Manolo Ceballosek, 70ak zituen beteak. Gehiengo zabala ermuarra izan bazen ere, Durangaldetik eta Deba barrenetik ere hurbildu zen jendea. Bitxiena baina, Algortatik etorritakoarena. Bideo eta argazki emanaldia egongo da Lobianon, azaroaren 7an, iluntzeko 7:30etan. Baina oraingoan ez da abituallamendurik ez trikiti soinurik egongo!

UDAKO LIBURUAREN LEHIAKETAKO SARIAK

Aurtengo Udako Liburuaren Lehiaketan 107 pertsonen hartu dute parte (67 emakumezko eta 30 gizonezko). Zozketan irabazle suertatu diren pertsonak hauek dira: Beatriz Saceda, Usoa Lopez eta Pepi Alvarez, eta horiek guztiek liburu bana eta urrian 'Ken Zazpi' taldeak eskainitako kontzerturako sarrerak jaso zituzten.

TXONDORRA MALLABIAN

Mallabian txondor txiki bat egiteko asmoa dago eta ekimen horretan parte hartu nahi dutenei deialdia egin nahi dute. Interesa dutenek, azaroaren 1en, larunbatean, 18:00etan Mallabiko Herrikora jo beharko dute. Taldearen asmoa: "Txondor txiki bat egin eta Olentzerorekin lotu nahi dugu, guk umeei esaten diogun kontua: Olentzero basora joan eta ikatza egiten duela benetan ikusi dezatela. Lekua badugu eta gertzen zaiguna da taldetxo bat egin antolatu ahal izateko".

ERMUHO ETA MALLABIHO TALDEAK DANBAKAN

Goiena Komunikazio Kooperatibak antolatutako Danbako III. Musika Lehiaketan gure herrietako hainbat taldek parte hartu dute, eta horietako batzuek sailkatzea lortu dute. Damudot talde mallabiarra urriaren 17an kontzertua eskaini zuen Elgetako Kafe Antzokian eta Flipin Folk ermuarra-eibartarra, abenduaren 12an eskainiko du.

QUETZAL
gazte denda

Baietz topatu
gustuko
zeozer?

Goienkale 9
943 17 00 65

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

AHOLKULARITZA FISKAL ETA LEGALA

URIARTE IRAEGI, S.L.

Komentukoa 3
Telefonoa: 943 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)